

[Eusk/Cast] [Videos] Masacre de Gasteiz

M1EGIN :: 03/03/2020

El 3 de marzo de 1976 la policía armada española asesinó 5 trabajadores en Gasteiz en el contexto de la huelga general.

[EUS]

1976ko martxoaren 3an polizia armatu espainolak 5 langile hil zituen Gasteizen greba orokorraren testuinguruan.

1976ko urtarrilaren 9an 6.000 langile inguruk haien lan-egoera hobetzeko greba hasi zuten. Forjas Alavesas enpresan sortu zen protesta, baina denborak aurrera egin ahala, Gasteiz osoko enpresetara zabaldu zen.

Martxoaren 3an, hirugarren greba orokorrera deitu zuten. Aurreko greba orokorretan ez bezala erabateko jarraipena izan zuen langileriaren sektore guztiak batu baitziren. Gasteizko langileek erakutsi zuten euren antolakuntza gaitasuna hazten ari zela. Gainera, estatu osoko langileentzat eredu izan zitezkeen.

Baina Estatuaren egiturak kapitalismoaren bidean jarrita zeuden aspaldi eta hura babesteko prest zeuden. Egun osoan zehar greba deialdia erreprimitu zuen poliziak. Dena dela, deialdiak aurrera egin zuen eta arratsaldeko bostetan asanblada deituta zegoen Zaramaga auzoko San Frantzisko Asiskoa elizan. 5000 pertsona inguru sartu ziren eta asko kanpoan geratu ziren. Polizia Armatuak eliza inguratu zuen eta, azkenean, gas negar-eragilea erabili zituen hura husteko. Atera ahala langileak jipoitu eta tirokatu zituzten. 150 langile zauritu eta Pedro Maria Martinez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, Jose Castillo García eta Bienvenido Pereda Moral langileak hil zituzten.

Elkartasuna azkar batean zabaldu zen, baita errepresioa ere. Martxoaren 6an Tarragonan Juan Gabriel Rodrigo Knafo hil zen poliziaren oldarraldiari ihes egiten; martxoaren 8 Euskal Herrian egin zen greba orokorrean zehar Vicente Antón Ferrero hil zuen poliziak Basaurin; eta Erromako enbaxada espainolaren aurrean protesta egiten ari zirela Mario Marotta hil zuten carabinieri tiroek.

Franko jada hilda bazegoen ere, gaur arte heldu den sistemaren jarraikortasuna erabatekoa zen.

Fraga Iribarne gobernaritza ministroa zen orduan eta Martin Villa Sindikatuekiko Erlazioetako ministroa. Beraiei egozten zaie gertatutakoaren erantzukizun osoa.

https://m.facebook.com/pg/martxoak.hiru/posts/?ref=page_internal&mt_nav=0

<http://irolairratia.org/2019/04/24/martxoak-3tik-maiatzak-1era/>

<https://ondaexpansiva.net/3-de-marzo-de-1976-los-sucesos-de-vitoriagasteiz/>

<https://www.youtube.com/watch?v=fMDSbHBaUvI&app=desktop>

https://m.facebook.com/story.php?story_fbid=2748054031952761&id=682722851819233

[CAS]

El 3 de marzo de 1976 la policía armada española asesinó 5 trabajadores en Gasteiz en el contexto de la huelga general.

El 9 de enero de 1976 alrededor de 6.000 trabajadores comenzaron una huelga para mejorar sus condiciones laborales. La protesta la iniciaron los trabajadores de Forjas Alavesas, pero con el paso del tiempo se extendió a todas las empresa de Gasteiz.

El 3 de marzo se convocó la tercera huelga general. A diferencia de las huelgas anteriores, el seguimiento de esta fue total, dado que se sumaron a ella todos los sectores de la clase trabajadora. Los trabajadores de Gasteiz demostraran así que su capacidad organizativa estaba creciendo. Además, podían convertirse en ejemplo para la clase trabajadora de todo el Estado.

Pero hacía tiempo que las estructuras del Estado defensoras del capitalismo estaban dispuestas a defenderlo ante cualquier ataque. La policía reprimió la protesta a lo largo de toda la jornada de huelga. De todos modos, esta continuó y a las 17h estaba convocada una asamblea en la iglesia de San Francisco de Asís en el barrio de Zaramaga. Alrededor de 5.000 personas entraron en la iglesia y muchas otras tuvieron que quedarse fuera. La policía armada rodeó la iglesia y, al final, la desalojaron a base de gases lacrimógenos. Según salían los trabajadores los golpeaban y tiroteaban. 150 trabajadores resultaron heridos y Pedro María Martínez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, José Castillo García y Bienvenido Pereda Moral fueron asesinados.

La solidaridad junto a la represión no tardaron en extenderse. El 6 de marzo, Juan Gabriel Rodrigo Knafo murió huyendo de la brutalidad policial en Tarragona; en la jornada de huelga general en Euskal Herria del 8 de marzo la policía asesinó a Vicente Antón Ferrero en Basauri y el 14 de marzo los tiros efectuados por los carabineros durante la protesta en Roma mataron a Mario Marotta.

Aunque Franco ya estaba muerto, la continuidad del sistema que perdura hasta hoy era muy patente entonces. Fraga Iribarne (ministro de Gobernación) y Martín Villa (ministro de Relaciones Sindicales) fueron los responsables absolutos de estos acontecimientos.

https://m.facebook.com/pg/martxoak.hiru/posts/?ref=page_internal&mt_nav=0

<http://irolairratia.org/2019/04/24/martxoak-3tik-maiatzak-1era/>

<https://ondaexpansiva.net/3-de-marzo-de-1976-los-sucesos-de-vitoriagasteiz/>

<https://www.youtube.com/watch?v=fMDSbHBaUvI&app=desktop>

https://m.facebook.com/story.php?story_fbid=2748054031952761&id=682722851819233

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-video-masacre-de>